



## **C1 ENTZUNAREN ULERMENA**

### **1. ARIKETA**

Ariketa honetan Felix Olaetxeak Zubieta aldean mendi-bueltaxka egiten ari zela zer ikusi zuen kontatuko digu. Grabazioa bi aldiz entzungo duzu 7 entzungai laburretan. (A-I) esaldiak dituzu alde batetik eta entzungo duzun informazioa bestetik. Zuk parekatu egin behar dituzu X adibidean bezala. Bi esaldi soberan daude.

*Euskadi Irratia. Amarauna saioa. (moldatua)*

***X. arrain txiki asko hilda aurkitu zituzten.***

- A. Aingira guzti-guztiak ez zeuden hilda.
- B. Basozainek ere bazuten gertatuaren berri.
- C. Erraustegiak legez isurketak egin ditzake.
- D. Felix Olaetxeak laginak hartu zituen.
- E. Felixek dakiela, aurreneko aldiz gertatu dira isurketak.
- F. Gutxitan joaten da Felix Olaetxea inguru horietara.
- G. Haserrea nagusi zen bertaratutakoen artean.
- H. Tamalez, bertako fabrika guztiek egiten dituzte isurketak.
- I. Ur barruan zein kanpoan ageri ziren aingirak hilda.

<b>Informazioak</b>	<b>0</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>
<b>Esaldiak</b>	<b>X</b>							

## 2. ARIKETA

Ariketa honetan Lesbos uharteko Moria izeneko errefuxiatu kanpamentuan egondako Idoia Moreno erizain gasteiztarrari egin dioten elkarrizketa entzungo duzu bi aldiz. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c), adibidean (0 zenb.) bezala.

*Euskadi irratia. Faktoria saioa (moldatua)*

### 0. Idoia Morenok...

- a) Afrikan bost urte eman ditu lanean.
- b) Bost urte pasa ditu Lesbosen.
- c) Zortzi hilabete eman ditu Afrikan erizain.

### 8. Lesbosen gertatzen denaren alderik lotsagarriena...

- a) gugandik horren hurbil egotea da.
- b) hango baliabideak ez erabiltzea da, asko izan arren.
- c) hegazkinik ez bidaltzea da, gertu egonagatik ere.

### 9. Moriako kanpamendura iristen direnak...

- a) Kanpin-dendetan biltzen dituzte, eguraldi ona lagun.
- b) Kontainer hotzetan bizi dira denak, baldintza kaxkarretan.
- c) Morian tokirik ez eta, asko kanpoan instalatzen dira.

### 10. Morian, janaria lortzeko komeriak...

- a) emakumeek janari bila joateko debekua dutelako.
- b) gizonak orduak alferkerian galtzen dituztelako.
- c) otorduek egun osoko lana dakartelako.

### 11. Jendea kanpamenduan kokatzeko irizpideak.

- a) erlijioaren arabera kokatzen saiatzen dira.
- b) ez dute ezeren araberako bereizketarik egiten.
- c) ia jatorri bakarrekoak direnez, denak nahastuta.

### 12. Batzuei asilo eskaera ukatzen zaie.

- a) Afrikako iheslariak direlako.
- b) guda egoera batetik ihesi ez datozelako.
- c) kanpamenduan urtebete pasa ez dutelako.

### 13. Lesbosen izandako esperientzia.

- a) gogorra izan da, nahiz Afrikakoarekin konparatzerik ez dagoen.
- b) oso gogorra izan da, Afrikan pasatakoaren adinakoa.
- c) sekulan izan duen lazgarriena izan da.

<b>Galdera</b>	<b>0</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>
<b>Erantzuna</b>	<b>a</b>						

### 3. ARIKETA

Ariketa honetan Isabel Elizaldek eta Jakoba Errekondok izan duten solasaldiaren zati bat entzungo duzu bi aldiz. Solasaldiaren gaia da mendialdeko herrien biziraupena XXI. mendean. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c), adibidean (0 zenb.) bezala.

*Euskadi irratia. Faktoria saioa (moldatua)*

#### 0. Kontu nagusia da:

- a) *bizitza modernoa zer den.*
- b) gure bizitzak nola modernizatu.
- c) modernitatea noraino sustatu.

#### 14. Mendialdea eta modernitatea.

- a) aspalditik eskutik helduta doaz biak.
- b) gaur egun ezin uztartuzkoak dira bata bestearekin.
- c) modernitateak dakarrena egun mendialdean dago.

#### 15. Lurraren inguruko ezagutza...

- a) ez da gune urbanoetatik kanpora atera.
- b) ez dugu baloratzen jakin.
- c) mende batetik hona garatuz joan da.

#### 16. Egiteko daukagun erronka nagusia da...

- a) gure arbasoen jakinduria hirietaraino nola zabaldu.
- b) herrian gure betiko bizimoduaren onurak nola ezagutarazi.
- c) hirian lurraren gaineko interesa nola sustatu

#### 17. Gazteak mendialdeko lanetara erakartzeko...

- a) begirada berri bat erakutsi behar diegu.
- b) beraien nahiak eta asmoak hobeto ezagutu behar ditugu.
- c) beraien ohiturak aldatzen lagundu behar diegu.

#### 18. Zer egin behar dugu gazteekin?

- a) Aukerak erakutsi, beraien bidea egin dezaten.
- b) Gurekin batera bidea egin, bakarrik ezin baitute.
- c) Utzi beraien bidea egiten, gu ondoan gaituztela.

#### 19. Gazteek aurrera egiteko...

- a) arriskuak ahal dela saihestu behar dituzte.
- b) bideko arriskuak arindu behar dizkiegu.
- c) zerbait egin nahiak dakarren arriskua onartu behar dute.

Galdera	0	14	15	16	17	18	19
Erantzuna	a						

#### 4. ARIKETA

Ariketa honetan Euskadi Irratian Fermin Erbitik loteriaz egindako gogoeta entzungo duzu bi aldiz. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c) adibidean (0 zenbakia) bezala.

*Euskadi irratia (moldatua)*

**0. Gabonetan ohitura errotuetako bat zera da:**

- a) loterian jokatzea.
- b) mezatara joatea.
- c) mozorrotzea.

**20. Loteria-zale amorratuak garen seinale du esatariak:**

- a) irrati jarduna eten izana, sari ziztrin baten berri emateko.
- b) irratsaioa moztu izana, sari nagusia emana zela esateko.
- c) Madrildik deitu izana, sariduna zela jakinarazteko.

**21. Esatariak lehen ez zuen loteriarik erosten. Orain bai. Nolatan?**

- a) lankideak inoiz saridun izateak larritzen duelako.
- b) lankideei behin loteria tokatu zitzaielako.
- c) orain nahi duen zenbakia ematen diotelako.

**22. Zer dela eta aipatzen du “gizon arruntaren ametsa”?**

- a) gizon batek loteria tokatzea amets zuelako.
- b) gizon bati loteria tokatu eta Citroen berri bat erosi zuelako.
- c) jendarteak, oro har, loteriarekiko duen atxikimendua zalantzan jartzeko.

**23. Haren ustez, dirutza irabazi izana ospatzen dutenek...**

- a) batere neurririk gabe edaten dute.
- b) diru gehiegi xahutzen dute ospakizunetan.
- c) ez diote gertatuari tamaina bereko itxura ematen.

**24. Artea, filosofia eta musika bezalako zaletasunek...**

- a) bestelako aberastasun bat eskaintzen digute.
- b) dirua oparo irabazteko ere balio dute.
- c) Eguberrietako errituak apaintzen laguntzen dute.

**25. Musika gustuko du esatariak.**

- a) baina horretaz gozatzeko etxetik irten behar izaten du.
- b) eta internet-en nahi adina kantu du eskuragarri.
- c) Gabonetan, tamalez, musika komertziala baino ez dago.

**26. Aurten esatariari loteria tokatzen bazaio...**

- a) ederki ospatuko du, bere moduan.
- b) ez du ospatzeko asmorik.
- c) haren poza nonahi erakutsiko du

Galderak	0	20	21	22	23	24	25	26
Erantzunak	a							